



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Winesburg, Ohio**
Egilea / Autor: **Sherwood Anderson**
Itzultzaileak / Traductor: **Joannes Jauregi**
Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 186
ISBN / EAN: 978-84-9109-827-0
Salneurria / Precio: 18 €
Orri kopurua / N° páginas: 304
Formatua / Formato: 130 x 195 mm - Rústica / Paper azala
Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos

Lana / La obra

Zenbat balio dute asmatu-erriko herrixka batetako nekazari eta langileen ametsek? Sinesten ahalko dugu guk ere haiekin, inoiz landa utzi eta hirira joaneko garaia eskatu? Haien eskuen keinuak behatu ahalko ditugu? Herriko Kale Nagusian igande goizez gora eta beheara ibili? Desira dugun harekin pasean atera iluntzean, baso aldera etzan eta elkarri musu emateko?

Amerikako Estatu Batuetako Ohion kokatzen du Sherwood Andersonek Winesburg herrixka. Hogeita bat istorio laburretan aletzen ditu bertako biztanleen nahi eta ezinak, elkar korapilaturiko bizitzak, XIX. mendeko Ipar Amerikako landa aldeko memoria emozional bat osatzeraino, industrializazioaren ufada gotorak betirako desagerrarazi baino lehen.

Egilea / Autor:

Sherwood Anderson (Camden, Ohio, 1876 - Colón, Panama, 1941) idazle estatubatuarra. Eskola 14 urterekin utzi eta egunkari-banantzailea, korta-mutila, unaia, etxe-margolaria, irakurle sutsua eta soldadua izan zen besteak beste, narrazio laburraren maisu bilakatu aurretik. Bere pertsonaien eguneroko garaipen eta galera ttikiak jainko samur eta zehatz baten begiradaz behatzen ditu. Honela dio bere epitafioak: Bizitza, eta ez heriotza, da abentura handia.

Itzultzailea / Traductor:

Joannes Jauregi (Astigarraga, 1994) Itzulpen- eta literatura-ikasketak egin zituen Gasteizen eta Bartzelonan, eta Berria egunkarian zuzentzaile eta itzultzaile aritutakoa da. Literatura kritikan ere jardun da, eta gaur egun irakaskuntza du ogibide. Yannis Ritsosen poemen bilduma bat euskaratu du.

